# ETXEBIZITZA BIRGAITZEKO LAGUNTZEN ESKAERA (2. LERROA – ERKIDEGOAREN OBRAK)

## JABEEN ERKIDEGOAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

| **Aurkeztu beharreko dokumentazio kasu guztietan** |
| --- |
| • Eskabidea aurkezten duen pertsonaren legezko ordezkaritza egiaztatzen duen agiria edo, hala badagokio, ordezkaritza emateko agiria. (Ordezkaritzaren Xedapena) |
| • Jabeen erkidegoaren identifikazio fiskaleko dokumentua (**IFK**). |
| • Jabeen Erkidego eskatzailearen **hirugarrenaren alta agiria**, beteta eta sinatuta. (Hirugarrenaren alta) |
| • Emandako **obra-lizentzia** edo haren eskaera.. |
| • Ordaindutako obren **udal-zergen eta tasen** ordainagiriak, halakorik balego. |
| • Jabeen erkidegoaren **akta**, egin beharreko obrak onartzen dituena, onartutako aurrekontua jasoko duena. |
| • **Eraikinaren Ikuskapen Teknikoaren (EIT)** txostena, Udalean aurkeztu izanaren udal-erregistroarekin. EITa EuskoRegiteren plataforman erregistratzen denean, ez da beharrezkoa izango dokumentazio hori aurkeztea, eta ofizioz egingo da egiaztapena. |
| • Obrak hasi aurreko egoeraren koloretako **argazkiak,** birgaitu beharreko eraikinarenak. |
| • **Onartutako obren aurrekontua** (kontratatutako gremioena) partidaka banakatuta, bakoitzaren neurketa, prezio unitarioa eta BEZa adierazita. EITak 1., 2. eta 3. mailetako esku-hartzeak zehazten baditu, horien konponketa aurrekontuan sartu beharko da. |
| • **Obra gauzatzeko egutegia**, gehienez ere bi urtekotan banatuta. |
| • Eskatutako obra-aurrekontuen hornitzaile desberdinen **hiru eskaintza ekonomiko** eta hautaketaren justifikazioa, diruz lagundu daitekeen gastua 40.000 eurotik gorakoa denean. |
| • Idatziz egindako **obra-kontratua** (edo sinatutako eskaintza), diruz lagun daitekeen kostua 60.000 eurotik gorakoa denean. |
| • **Proiektu teknikoa**, ikus-onetsita, obrak hala eskatzen badu. |
| • **Ordainsari teknikoen aurrekontua,** obrak hala eskatzen badu (proiektua idaztea, obra zuzendaritza, segurtasuna eta osasuna koordinatzea, EIT,…). |
| • Beste administrazio batzuetatik jasotako edo, hala badagokio, **jaso beharreko diru-laguntza** emateko agiria. |
| *2. motako obretarako – energia-eraginkortasuna hobetzea* (gainera): |
| • **Egungo eraikinaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria** (obren aurrekoa) eta **etiketa energetikoa.** |
| • Lortu nahi den eraikinaren **eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria (proposamena).** |
| *3. motako obretarako – irisgarritasuna hobetzea* (gainera): |
| • Irisgarritasun-araudira egokitzeko justifikazioa (68/2000 Dekretua eta CTE DB- SUA). |